



GALBAHE IKERKETA BEKAREN OINARRIAK

ERAKUNDE DEITZAILEA ETA ERAKUNDE KOLABORATZAILEA:

Igartubeiti Baserri Museoak San Telmo Museoaren kolaborazioarekin bi erakundeen bilduma etnografikoei buruzko lehen ikerketa- eta dibulgazio-deialdia egin dute, euskal landa-gizartea aztertzeraz bideratutako diziplinarietako berrinterpretazioa edo elkarrizketa proposatzeko.

Igartubeiti Baserri Museoa euskal gizartearen herentzia kulturala gaur egungo ikuspegitik transmititzen duen gune kultural aktiboa da., kultura-ondarearen hezkuntza- eta gizarte-ikuspegia oinarritzat hartuz eraldaketa sozial jasangarria sustatzen duen espazioa da.

San Telmo Museoa, 1902an inauguratua, Euskal Gizartearen Museoa da eta bere helburua euskal gizartearen iragan kultural eta historikoa erakustea da, eta aldi berean, eztabaida eta sorkuntza garaikidea sustatzea. Oraina ulertzeko eta etorkizuna iraganaren ezagutzatik eraikitzeko tresna izan nahi du.

BEKAREN XEDEA:

Deialdiaren helburua ondare etnografikoari buruzko dibulgazio-proiektuak garatzen laguntzea da, ondare horren gizarteratzea sustatzeko. Kultura-ondarearekin, usadioekin eta ohitura tradizionalekin ematen ari den etengabeko deserrotzeak, XIX. mendearen amaieratik Europa osoan gertatzen ari den fenomenoak, agerian uzten du iraganera begiratzeko eta egungo errealitatean jarduteko modu berriak birpentsatzeko beharra.

Tokiko esperientziatik abiatuta, baina begirada zabaldu eta Europako ondare partekatuen barruan geure errealitatea aberasten lagunduko duten elementu amankomunak bilatuz, deialdiak, alde batetik, euskal kulturaren aztarna materialak berrinterpretatzen eta begirada eta diskurtso berriak formulatzen lagundu nahi du, eta, bestetik, ondare eta herentzia hori zabaltzen ere lagundu nahi du.

EZAUGARRIAK:

1. Ikerketa eta dibulgazio beka.
2. Ikerketa gauzatzeko formatua irekia da: argitalpena, ikus-entzunezkoa, erakusketa, instalazioa, tailerrak, topaketak, eztabaidak, etab.
3. Nahitaezkoa izango da amaierako lanaren dibulgazioa jendaurreko ekitaldi batetan egitea.



4. Sei hilabeteko iraupena izango du, beka eman eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasiz.
5. Proiektua euskaraz egingo da eta, nahi izanez gero, gaztelaniara ere itzuliko da.
6. Originala eta argitaragabea izan behar du.
7. Deialdia egin duten bi museoetako bilduma etnografikoak izan beharko dira ikerketaren ardatza.
8. Beka hau bateraezina da beste beka edo laguntza batzuekin.

BEKAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA:

1. Bekaren zenbateko osoa 6.000 eurokoa da, bidaia, ostatu, ikerketa material, mantenu eta ekoizpen gastuak barne hartuz.
2. Zenbateko horiek zergen atxikipenari lotuta egongo dira, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera.
3. Bekaren ordainketa:
 - a. Zenbatekoaren %30a bekadunak laguntza onartzeko agiria sinatu ondoren.
 - b. Zenbatekoaren %40a proiektua eta aurrekontua onartzeko unean.
 - c. Zenbatekoaren %30a proiektuaren dibulgazioa jaso eta amaierako memoria entregatu ondoren.
4. Gastuen justifikazioa: ekoizpen-gastuak frogatuko dituzten fakturak, tiketak edo ordainagiriak aurkezteko konpromezua hartzen du bekadunak.

IKERTZAILEAREN BALDINTZAK:

1. Banakako pertsonak edo lantaldeek jaso ahal izango dute beka.
2. Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egotea. Lantaldeen kasuan, gutxienez kide bat Gipuzkoan erroldatuta egotea.
3. Gizarte Zientzia eta Humanidadeetan unibertsitate-ikasketen titulua izatea.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ezagutzea.

HAUTAGAIEN AURKEZPENA:

1. Beka jasotzeko proposamenak elektronikoki egingo dira **2025eko apirilaren 25eko 17:00ak baino lehen** igartubeiti@k6gestioncultural.com postatik.
2. Aurkeztu beharreko agiriak:
 - a. Izendagaien NAN-aren kopia.
 - b. CV eta egiaztagiriak.



- c. Gauzatu beharreko proiektuaren memoria itsua, PDF moduan:
 - i. Lanaren ikerketa-arloa.
 - ii. Lanaren interesa, originaltasuna eta garrantzia.
 - iii. Materialak, baliabideak, lan-metodologia eta balizko aurrekontua.
 - iv. Lana garatzeko kronograma.
3. Epaimahaiak eskubidea izango du parte-hartzaileei elkarrizketak eskatzeko, balorazioa egiteko beharrezko ikusten badu.

HAUTAKETA ETA ESLEIPEN PROZESUA:

1. Deialdi publikoa www.igartubeitibaserra.eus eta www.santelmomuseoa.eus
 - a. web orrien bidez egingo da. Horrez gain, bi aldeek ohikoak dituzten zabalkunde bideak erabiliko dituzte.
2. Epaimahai batek proposamenak balioetsiko ditu. Epaimahaia honakoa izango da:
 - a. Igartubeiti Baserri Museoko arduraduna.
 - b. San Telmo Museoko teknikaria.
 - c. Gordailuko teknikaria.
3. Epaimahaiak objektibotasun osoz jokatu du, berdintasun eta diskriminazio eza printzipioak errespetatuaz.
4. Beka behin betiko esleitu dela ulertuko da bekadunak laguntza onartzeko agiria sinatzen duenean.

BALORAZIO-IRIZPIDEAK:

1. Garrantzia: *gehienez 50 puntu*

- a. Proiektuaren kalitatea, helburuen, originaltasunaren eta proiektuaren testuinguruaren arabera. *Gehienez 20 puntu.*
- b. Bekaren xedeari dagokionez euskarazko edukiak aberasteko proiektuaren ekarpena. *Gehienez 15 puntu.*
- c. Bi museoen balioekin bat datorren diskurtsoa aurkeztea eta egungo edukiei balio erantsia eman ahal izatea. *Gehienez 15 puntu.*

2. Inpaktua, tokiko eta Europako dimentsioa: *gehienez 25 puntu*

- a. Xede duen komunitatean eragin positiboa eta iraunkorra sortzeko gaitasuna. *Gehienez 10 puntu.*
- b. Ondare-jardueretan gizartearen parte-hartzea sustatzeko gaitasuna. *Gehienez 10 puntu.*
- c. Balioetsi ahal izango da partekatutako ondare hori agerian jar dezaketen Europako beste bilduma batzuekin elkarrizketa ezartzea eta, horrela, tokiko diskurtsoa indartzea. *Gehienez 5 puntu.*

**3. Bideragarritasuna: *gehienez 25 puntu***

- d. Ekonomikoa: proiektua aurrekontu erabilgarrira egokitu behar da. *Gehienez 5 puntu.*
- e. Aldi baterakoa: proiektuak ezarritako epeak bete behar ditu. *Gehienez 5 puntu.*
- f. Soziala: gizarteak zer neurritan balia dezakeen proiektua. *Gehienez 5 puntu.*
- g. Ingurumena: proiektuaren iraunkortasuna eta ingurumen-inpaktua. *Gehienez 5 puntu.*
- h. Irisgarritasuna: hainbat gizarte-talderen sarbidea eta inklusioa bermatu behar ditu. *Gehienez 5 puntu.*

BEKAREN EBAZPENA:

Ebazpena 2025ko maiatzaren 16ko 14:00ak baino lehen jakinaraziko da www.igartubeitibaserraia.eus eta www.santelmomuseoa.eus web orrien bidez. Hautagai-zerrenda aurkezteko unean eman duten helbide elektronikoan ere jakinaraziko zaie parte hartu duten pertsona guztiei.

ONURADUNEN KONPROMISOAK:

1. Diru-laguntza ematen den unetik aurrera erabili ahalko da.
2. Beka amaitu eta hurrengo hilabetean bekaren garapenari eta aprobetxamenduari buruzko memoria bidaltzeko konpromisoa hartzen du onuradunak.
3. San Telmo Museoaren eta Igartubeiti Baserri Museoaren laguntza bekaz gozatzeko epean sortzen diren agiri guztietan aipatu beharko da.

JABETZA INTELEKTUALA:

Jabetza intelektual egilea edo egileena da. Egileak edo egileek deialdi honen esparruan garatzen duen proiektuaren originaltasunaren eta egiletzaren erantzukizuna du, eta Igartubeitik eta San Telmo museoak beren-beregi salbuesten dute berme hau ez betetzeak zuzenean edo zeharka eragin ditzakeen kalte eta/edo galerengatik.

Egileak/ek doan lagatzen ditu/zte, baina ez modu eksklusiboan, ustiapena eta elementu guztien edo haien zati baten irudia 2026ko abuztuaren 31ra arte. Egileak edo egileek babestea erabaki ahal izango du/te Creative Commons lizentzia ez-komertziala 3.0 Espainia. Lagapen hori egileari/eei itzuliko zaio/e epe hori amaitutakoan. Hautatutako egileak edo egileek baimena ematen dio/te Igartubeiti Baserri Museoari eta San Telmo museoari bere izena/k deialdi honen helburuetarako egoki deritzoten moduan erabiltzeko.



- Irudi-eskubideak:

Hautatutako egileak edo egileek baimena ematen du/te proiektuaren esparruan hartutako irudiak (argazkia, bideoa, etab.) erabiltzeko, ondorengo informazio- edo sustapen zabalkunderako.

- Datuak babesteko legea:

Datu Pertsonalak Babesteko Araudia betez, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua betez, jakinarazten da emandako datuak Igartubeiti baserri museoaren titulartasuneko datubase informatizatu batean gordeko direla, berea dela datuen arduraduna eta soilik bekaren kudeaketarako erabiliko direla. Datu horiek ez zaizkie inola ere hirugarrenei emango. Hala ere, une oro daude informazio eskubideak, atzipena, zuzenketa, ezeztatpena eta oposizioa. Horretarako, idazki bat aurkeztu beharko da deialdi hau antolatzen duen egoitza fisikoan edo igartubeiti@gipuzkoa.eus helbide elektronikoaren bidez.